

JAUNAK:

Badakizute euskera ikastera aurten asi naizela, ta ofengatik ezta nere itzaldia luzea izango.

Auretik dijoala nere agurá, lur eder ontara, nere eriko puzka maitagarí oni eta bere semiei euskaldun on, zintzo ta bikañak, ama euskerari dagokion aintza, ematen dutelako. Euskaldun guziak egiten al dute zuek bezela?

Donestebearak, beste Napařoko semiak bezela, naigabez dira Napařoko eskubideak egunero banatzen ari diralako, eta gure eskubidekin eriko mamia, gure ondasun ta aberastasuna. Baño ez dute bilatzen ea gaitz oien susterak nun ote diran. ¿Zer egiten dute euskaldun geyenak bere oiturak ta izkuntzez? Aztu: aldean utzi, eta aiekin aldean uzten dute eriko anima edo gogoa.

Begirazazute: Gu, ditugun gauz guztiak, gurasoak utzi ziguten eskubideak, eusko gauzak dira. Euskaldunak irabazi, euskaldunak gorde. Izate bakoitzari izen bat ta lege bat.

Baño... euskaldun bezela dagokiguna, nai dugu gorde erdel-duntu ta gero? ¿Zer eskubidekin? Erdelduntuta ez gera jabe ayek beste jendeak gera; eta beste bezela egin bear zaigu. ¿Ez gerala besteak? Gure neskatilak señoritagoak izango diralakoan erderaz egiten dute. Gure jauntxok, Madridko señoritoak egiten duten guztiz txintxilika daude, bere pensamentu ta borondatea ez daude inguratzen dietetan, urutian daukate; bere oiturak eztira bere aitenak bezalakuak; jarpegiz ere aldatzen ari dira! Eta ala gure eña ezta gure eña, beste baten antza txar bat baizik.

Toki guzietako arotasuna, antxiñeko izatea oida, bertakoa, jatoña. Ortan jartzen dute eñi guztiak *Aristocracia* deritzan gauz ori.

Eta gu ¿zer egiten dugu? Aundiagoak izateagatik kanpotarén kinuñak ere tximuak bezela berdintzen dugu. Ala ez gera izango ez gutañak ez bestetañak; onela ez gera ez euskaldunak, ez napañak eta ofengatik ez gera Napañoako eskubidearen jabiak; eta olaxe Napaña bere foruak galduko ditu.

Amaitzeko: Gure anima ta gorputzeko ondasunak, gure eskubideak naibaditugu izan gaitzen euskaldun zintzoak. ¡Lur ontako andre gazte ta neskatxoak! euskeraz egin ezkeru, zure eñian beintzat geyago baliyoko duzute. Eta zuek, jaunak, euskeraz, izango zerate emengo jaunagoak eta gizonaguak.

Ori jakin dugulako asi gera Iruñako estudiantiak euskeraz ikasten, eta emendik auñera Napañoako burudun seme guztiak izango dira beti, gure Napañ santuaren aintzatako.

Esan dut.

Julia Fernandez Zabaleta.

Iruñaña.